

04/13 ALKATETZA DEKRETUA

Busturian, 2013ko maiatzaren 17an.

Angel Apraiz Ozamizek eragindako Altamira auzoko 13 zenbakia daukan etxeko eraberritze eta sendotze lanak direla eta herri bidea itxi egin da kontenedore bat eta hainbat hesi jarriz, Udalaren baimenik gabe, eta haiek kentzeko errekerimendua aintzat ez dela hartu ikusirik, honen bidez ZERA EBAZTEN DUT:

1. Altamirako 13 zenbakiko etxean egiten ari diren lanak berehalaxe geldiaraztea.

2.- Lanen arduradun titularra den Angel Apraiz Ozamizen ordezkariari, Borja Apraiz Totorikaguena jauna, jakinarazpen honen berri ematea eta egindakoak Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 219 artikuluan ezarritakoaren arau-haustea suposatu daitekela eta horregaitik 500 €tik 5.000 €ra artekoisuna jarri diezaiokela.

3.- Apraiz jaunari eskatzea kontenedorea berehala kentzeko eta itxita dagoen herri-bidea zabaltzeko.

4.- Udalaren hurrengo Informazio Batzordean Dekretu honen berri ematea.

ALKATEA,